Iturria: www.berageureherria.com artxiboa

KOREAKO ETXEEN IZENGOITIAK

Ba ote da inor Berako parte honetan ez dakienik Alkaiagari Korea erraten diotela?

Zergatik izen hori, ordea? Aspaldiko kontuak dira, baina auzoko zaharrenei galdetzen badiezue, ez zarete kontestarik gabe gelditukо.

Niri kontatu didate bizilagunen artean saltsa biztu zela pajinako lanengatik. Badakizue orduan auzolana egin behar izaten zela noiznahi, orain ez bezala: ura iturritik depositura ekartzeko eta handik etxe guzietara partitzeko, bidea konpontzeko, sasiak garbitzeko... Bada, pajina horietako batera joateko deitu zuten aldi batean haserretu omen ziren hemengo gizon-emakumeak. Zergatik? Batzuek bertzeek baino guttiago egiten zutelakoz; batzuen iduriz bertzeek ez zutelakoz obligazioa behar bezala kunplitzen.

Han ibili izanen ziren disputan, aitzakia edo arrazoia dantzan. Halakoren batean fuerte samar sutu omen zen bakarren bat, eta hortik gero gatazka gogorra etorri. Beran orduan norbaitek galdetu omen zion Modesto Atxari ea zer berri zen Alkaiagan, hura pajinan ari izaki norbaitentzat, eta hark erran omen zuen jesukristoren kasaila zela, iduri zuela Koreako gerra bertan genuela. Horixe nahikoa eta aski.

Koreako Gerra famatua 1950etik 1953era bitarte izan zen, eta ordukoa izanen da, nik uste, istorio hau.

Eta Alkaiaga Korea izan baino lehen, auzoko etxeei ere norbaitek paratu omen zien izengoiti bana. Gaur egun, nik dakidala, ez da batere normala etxeak bigarren aldiz horrela bataiatzea, baina aspaldi urrunean egiten izan behar zen. Baserri auzoetan, behinik behin, toki batean baino gehiagotan egiten zela ikasi dut nik.

Koreako baserrien izen bereziak letania modura erraten dituzte oraindik gure auzoko goiti-beheitiak ongi dakizkitenek.

Niri honela eman dizkidate: Barrentxe = *Zurrutero*; Mariskonea = *Zingopingo*; Gartzinea = *Zingopie*; Errandonea = *Zingopar*; Garakoetxea = *Gargantilla*; Martinea = *Koropillo*; Etxeberri = *Arto-zako*; Matxinea = *Sunsundegi*; Borda = *Bota-largo*; Soroa = *Begi-goiti*; Martintxeberri = *Patroitegi*; Iparragirre = *Betroitegi*; eta Kamaindegi = *Zakurtegi*. Hor falta diren etxeak (nire jaiotokia, konparazio batera, Gorrintxea) ez ziren eginak izanen txartelak partitzen ibili ziren denboran; baliteke hori izatea zerrendan ez agertzeko arrazoia.

Inork ez dit erran zergatik paratu zituzten deitura horiek. Oraingo adinduenek ezagutu dutena baino lehenagokoak omen dira. Jende bromazale eta mingain abilekoak utzi zigun oparia. Umore oneko jakintsuen dotrinaren bertze kapitulu bat gehiago.

Izen batzuk argixeagoak dira bertze batzuk baino: zurrutero, gargantilla, koropillo, arto-zako, begi-goiti, patroitegi, betroitegi («betroia» behi arraza dela jakinda), zakurtegi. Bertze zenbait nahiko ilunak zaizkit: sunsundegi, bota-largo. Baina bada multxo bat misterio totala dena niretzat: zingopingo, zingopie, zingopar. Zer ote zen "zingo" hori?

Noizbait ere izaten bada gure Korea independiente eta ni presidente nonbratzen banaute, aginduko dut gure Errepublikako etxe inportanteei izen horiexek paratzeko: osasun etxeari, unibertsitateari, bertsolari eta poeten elkarteari, nekazari eta langileen sindikatuari, filosofo eta pentsalarien txokoari, artista guzien agertokiari... Horrela ez ditugu gure oroitzetik galduko eta betikoz gelditukо dira gure historiaren liburuan.

Mikel Taberna Irazoki, "Kapi"